

## MARKINAKO EUSKAL LORA JOKOAK

1983-IX-25

*Jose Antonio Arana Martija*

1983an Markinan egin ziren Euskal Jaiei mendeurrena ospatzeko, 1983. eko Irailean antolatu zituen bertako Udalak Euskal Lora Jokoak lau sailetan, hots, Saiakera, Olerkia, Antzerkia eta Narrazio laburra, eta sail bakoitzaren irabazleari 250.000, 200.000, 150.000 eta 100.0000 pezetako saria emateko, epai-mahaikoak izendatzea Euskaltzaindiaren eskuetan utzi zuen Udalak.

Saiakera eta Antzerki sarien irabazlea aukeratzeko, Jose Antonio Arana Martija, Juan Angel Etxebarria Martin eta Xabier Gereño Arrarte Euskaltzain Urgazleak izendatu zituen Euskaltzaindiak eta beste sarien epai-mahaikotzat Juan San Martin Ortiz de Zarate Euskaltzaina eta berarekin batera Juan Maria Lekuona Berasategi eta Karlos Otegi Lakuntza Euskaltzain Urgazleak Olerkiaren sariarentzat eta Juan Maria Lekuona Berasategi eta Arantza Urretavizcaya Bejarano, Euskaltzain Urgazlea hau ere, Narratiba laburra sariarentzat.

Irailearen 30an bildu ziren Bilbon Saiakera eta Antzerki sailetako epai-mahaikoak eta egun berean, Donostian, Olerki eta Narratiba laburra sailekoak, sailka erabaki hau hartuz:

1. *Saiakera*. “Xemeingo Ezpatadantza” aurkeztutako lan bakarrari saria ematea. Erroteta izenordearekin azaldu ziren egileak hauek ziren: Felipe Amutxategi Duralde, Iñaki Irigoien Etxeberria eta Franzisko Xabier Garitaonandia Sardui.

2. *Olerkia*. Aurkeztutako bi lanetatik, “bertso helduak, bihotz barnean bilduak” delakoaren lanari saria ematea. Luis Baraiazarra Txertudi izan zen irabazlea.

3. *Antzerkia*. Aurkeztutako bi lanetatik, “Mendi ta itxaso” delakoaren lanari saria ematea. Itxasmendi izenordearekin azaldu zen egilea Augustin Zubikarai izan zen.

4. *Narratiba laburra*. Aurkeztutako 16 lanetatik, “Arroxali” delakoaren lanari saria ematea. Juan Maria Atutxa izan zen egile saritua.

Urriaren 2an, Salvador Madrazo, Gernikako Notariaren aurrean, zabaldu ziren jendaurrean lehiaketako plikak eta aipatutako egileak agertu ziren irabazle.